

OHIKO AKATSAK KONTRATAZIO PUBLIKOAN INGURUMEN-IRIZPIDEAK TXERTATZEAN



© Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

ARGITARATZAILEA

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila
Eusko Jaurlaritza
Urkixo zumarkalea 36 – 6. solairua
48011 Bilbo

www.euskadi.eus

www.ingurumena.eus

www.ihobe.eus

compra.verde@ihobe.eus

EDUKIA

Dokumentu hau Ihoberen talde teknikoak egin du,
Ecoinstitut SCCLren lankidetzarekin.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA

Emilia Oleaga



Liburu honen edukiak, edizio honetan, lizentzia honekin argitaratu dira:
Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 3.0 Unported, Creative Commons-ena
(informazio gehiago: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/W.o/deed.es_ES).

AURKIBIDEA

SARRERA		2
1. AKATSA	DEFINIZIO ZEHATZIK GABEKO INGURUMEN-IRIZPIDEAK SARTZEA	4
2. AKATSA	EZ JARTZEA "EDO BALIOKIDEA" LEGEAK HALA ESKATZEN DUENEAN	6
3. AKATSA	PRODUKTU BAT EKOETIKETA ZEHATZ BATEKIN ZIURTATUTA EGON DADILA ESKATZEA	9
4. AKATSA	GERO AKPAN JASOTZEN EZ DIREN BALORAZIO-IRIZPIDEAK IRADOKITZEA	12
5. AKATSA	BALORA DAITEZKEEN INGURUMEN-IRIZPIDEAK TXERTATZEA, NOLA BALORATUKO DIREN ZEHAZTU GABE	14
6. AKATSA	FORMULAREN BIDEZ BALORA DAITEZKEEN INGURUMEN-IRIZPIDEAK BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ BALORA DAITEZKEENEKIN NAHASTEA	17
7. AKATSA	LIZITATZAILEAK INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMA BAT DUELA BALORATZEA	20
8. AKATSA	KAUDIMEN-IRIZPIDE GISA ZIURTATUTAKO INGURUMEN-KUDEAKETAKO SISTEMA BAT IZATEKO ESKATZEA	24
9. AKATSA	ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK TXERTATZEA EGIKARITZE-BALDINTZA GISA	27

GIDA HAU ERABILTZEKO GAKOAK



Legeria



Adibidea



Ondorioak



Gomendioak

Sarrera

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak kontratazio publikoetan ingurumen-irizpideak non eta nola sartu jasotzen duen arren, praktikan oraindik zalantzak sortzen dira hori egiteko moduari dagokionez. Horrek, akatsak egitera edo gero lizitazioa zailtzen duten irizpideak zehaztera garamatza.

Argitalpen honen helburua da ohiko akats horietako batzuk identifikatzea eta horiek nola saihestu azaltzea.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak erosketetan eta kontratazio publikoetan ingurumen-irizpideak non eta nola sartu jasotzen duen arren, praktikan oraindik zalantzak sortzen dira hori egiteko moduari dagokionez.

Batzuetan, hori dela eta ingurumen-klausulen definizioan akatsak egin ohi ditugu, edo zehaztu gabeko irizpide ez oso argiak sartu ohi ditugu, lizitazio-prozesuaren gainerako zatian arazoak sortzen dituztenak:

- **Lizitatzailleentzat**, lizitazioan eskatu edo baloratzen denaren ezaugarri zehatzak ezagutzea zailtzen du. Horrek organo kontratatzailearen premietarako egokienak diren eskaintzak eta egiaztagiria aurkeztu ahal izatea eragozten du; eta ondorioz, arbitrariotasun-sentimendua eta eskaintzen ebaluazioan egon daitekeen diskriminazio-sentimendua areagotzen ditu.
- **Kontratu-organoentzat**, zehaztasunik eta argitasunik ezak edo ingurumen-irizpideak oker idazteak zaildu egiten du eskaintzak modu objektiboan, ez-diskriminatzailean eta batez ere gardenean ebaluatzea. Horrek areagotu egiten du eskaintzak ebaluatzeko behar den denbora eta ebaluazioa justifikatzeko beharra; gainera, baldintza-agiriak edo adjudikazioa aurkaratzeko arriskua handitzen du, epeak luzatuz eta gastu gehigarriak eraginez.

Arrisku horiek prebenitzeko eta lizitazioen kalitatea hobetzeko, argitalpen honek kontratazio-agirietan ingurumen-irizpideak sartzerakoan **ohikoenak diren akatsetako** batzuk jasotzen ditu, eta horietako bakoitzerako **arazoa non dagoen eta nola zuzendu daitezkeen** aurkezten du, adibide zehatzekin ilustratuta.

Honako akats hauek jorratzen dira:

1. akatsa **Definizio zehatzik gabeko ingurumen-irizpideak sartzea**
2. akatsa **Ez jartzea “edo baliokidea” legeak hala eskatzen duenean**
3. akatsa **Produktu bat ekoetiketa zehatz batekin ziurtatuta egon dadila eskatzea**
4. akatsa **Gero AKPAN jasotzen ez diren balorazio-irizpideak iradokitzea**
5. akatsa **Balora daitezkeen ingurumen-irizpideak txertatzea, nola baloratuko diren zehaztu gabe**
6. akatsa **Formularen bidez balora daitezkeen irizpideak balio-judizioaren bidez balora daitezkeenekin nahastea**
7. akatsa **Lizitazaileak ingurumena kudeatzeko sistema bat duela baloratzea**
8. akatsa **Kaudimen-irizpide gisa ziurtatutako ingurumen-kudeaketako sistema bat izateko eskatzea**
9. akatsa **Zehaztapen teknikoak txertatzea egikaritze-baldintza gisa**

Hobetu daitezkeen akats edo alderdi horiek ingurumen-izaerako klausulen definizioan zentratzen dira, baina horietako asko era guztietako irizpide teknikoetan —ingurumenekoak edo ez— ezarri daitezke; beraz, horiek kontuan hartzeak **oro har zuen kontratazioa hobetzen** lagunduko dizue.

Definizio zehatzik gabeko ingurumen-irizpideak sartzea

Ingurumen-irizpideak oso modu lausoan edo zehaztugabean definitzen direnean, irizpideak benetan betetzen direla ziurtatzeko aurkeztutako dokumentazioaren ebaluazioa zailtzeko arriskua dago, bai eta diskriminatzaileak izateko ere. Hori saihesteko, funtsezkoa da irizpideak zehatz definitzea, anbiguotasunik gabe eta, ahal den neurrian, arau eta estandar espezifikoei erreferentzia eginez.



Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak aurreikusten duen bezala, ingurumen-irizpideak —preskripzio teknikoak, adjudikazio-irizpideak edo egikaritze-baldintzak— modu argi eta objektiboan definitu behar dira.

Hala ere, oraindik badira oso modu lausoan edo zehaztugabean definituriko ingurumen-irizpideak jasotzen dituzten baldintza-agiriak, hala nola:

- produktu biodegradagarriak, dagokion estandarra definitu gabe,
- sasoiko produktuak, ezartzen zaion egutegia erraztu gabe, edo
- ingurumena errespetatzen duten produktu ekologikoak, orokorrean, alderdi zein ingurumen-araua edo -estandar definitu gabe.



Adibidez:

Jaialdi bateko catering zerbitzurako lizitazio batean, hornitutako ontziteria eta mahai-tresnak biodegradagarriak/konpostagarriak izan daitezela eskatu da.

- *Produktu gehienak biodegradatu egiten dira, hau da, mikroorganismoen ekintzaren bidez CO₂-an, metanoan eta material/biomasan deskonposatzen dira. Dena den, abiadura eta horretarako behar diren baldintzak asko alda daitezke material batzuetatik besteetara. Adibidez, poliestirenozko bilgarriek milaka urte behar dute deskonposatzeko¹. Horretaz gain, ez da berdina biodegradagarria eta konpostagarria. Produktu konpostagarriak deskonposatu ondoren degradazioaren ondorioz ongarria edo konposta uzten dutenak dira.*
- *Zoritzarrez, "biodegradagarria" eta "konpostagarria" deiturikoak ez daude definituta, ez eta modu ofizialean kontrolatuta ere. Beraz, ontziteria eta mahai-tresnak biodegradagarriak/konpostagarriak izan daitezela eskatzen denean zeri buruz ari garen zehazten ez badugu, eta ez badugu zehazki zer nahi dugun (biodegradagarria edo konpostagarria), edozein produktu aurkeztu ahalko litzateke eta ez genuke horiek baztertze argudiorik izango. Beraz, ezingo genuke bereizi biodegradatzeko denbora asko behar duten edo konpostagarriak ez diren materialen artean, baldin eta lehenetsi nahi duguna material horiek hondakin gisa bildu ondoren konpostatzea bada.*

¹ UN Environment (2018). SINGLE-USE PLASTICS: A Roadmap for Sustainability. UN Environment.

Non dago arazoa eta nola konpondu daiteke?

Irizpideen argitasun eta zehaztasun faltak —ingurumen-irizpideak ere— hainbat arazo sortzen ditu, bai organo kontratatzaileentzat, bai lizitatzzaileentzat:

- **Lizitatzzaileentzat**, eskaintza eta egiaztagiri egokienak aurkeztu ahal izateko, lizitazioan eskatzen edo baloratzen denaren ezaugarri zehatzak zehatz-mehatz jakitea zailtzen du.
- **Kontratu-organoeentzat**, baldintza-agiriak prestatzeko hasierako azkartasun teorikoa geroz eta zailagoa da eskaintzak gardentasunez eta diskriminaziorik gabe ebaluatzeko, eta gainera, baldintza-agiriak edo adjudikazioa aurkaratzeko beharrezkoak ez diren arriskuak handitzen dira. Askotan, arriskua ekiditeko, kontratazio-mahaiak erabaki ohi du, eskaintza guztiak onartzea ez bada ere, ahalik eta interpretaziorik zabalena eskaintzea, eta hori dela eta, irizpidearen hasierako balioa galtzen da.



BERAZ, INGURUMEN-ZEHAZTAPEN GUZTIAK MODU OBJEKTIBOAN, GARDENEAN, ARGIAN ETA ANBIGUOTASUNIK GABE DEFINITUTA DAUDELA ZIURTATU BEHAR DUGU.

Gu laguntzeko, honako hau egin dezakegu:

- Ihoberen **Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Irizpideen** idazketa kontsultatzea (<https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>).
- Ihoberen irizpiderik ez badago, dauden ziurtapen ekologikoko arauak, estandarrak eta sistemak erabiltzea. Ihobek argitaratutako **“erosketa eta kontratazio publiko berdean ingurumen-ziurtagiriak erabiltzeari buruzko gida praktikoa”** lagungarria izan daiteke horretan.



Zein izango litzateke bertsio zuzen bat?

Orain badakigu arazoa non dagoen eta zer egin behar dugun zehaztapena modu seguruan idatzita egon dadin, Kontratuei buruzko Legearen ikuspuntutik. Beraz, zuzendu dezagun hasieran emandako adibidea. Balizko bertsio bat honako hau izango litzateke:

HASIERAN

Hornitutako ontziteria eta mahai-tresnak biodegradagarriak/konpostagarriak izan daitezela eskatu da.

ZUZENDUTA

Hornitutako ontziteria eta mahai-tresnak konpostagarriak izan daitezela eskatu da, EN 13432 arauak edo baliokideak definitzen duenari jarraikiz.

- Jaialdian aurreikusten bada herri bazkariko ontziteria eta mahai-tresnak janari-hondakinekin batera hondakin organiko gisa bildu behar direla konpostatze-planta batean tratatzeko, zuzenean eska dezakegu produktuak konpostagarriak izan daitezela, eta ez soilik biodegradagarriak. Eta, gainera, horiek konpostagarriak izan daitezela, EN 13432 “Konpostajearen eta biodegradazioaren bidez berreskuratu daitezkeen enbalajeetarako baldintzak” arauaren arabera. Arau horrek bermatzen du produktuak konpostatze-planta industrialetan konpostagarriak direla eta bukaerako konpostak ez duela substantzia kaltegarriak. Modu horretan, modu argi, garden eta objektiboan definitzen da irizpidea.
- Gainera, “edo baliokidea” gehitu behar da; izan ere, Legeak jasotzen duen bezala, zehaztapenek nazio-mailako, Europako edo nazioarteko arauak aipatzen dituztenean, arau horiekin batera “edo baliokidea” jarri behar da.



Ez jartzea "edo baliokidea" legeak hala eskatzen duenean

Zehaztapen teknikoek honako hauei egiten badiete erreferentzia: nazio-mailako, Europako edo nazioarteko normalizazio-erakundeek egindako arauak eta bestelako erreferentzia teknikoak; edo fabrikazio, jatorri, prozedura, marka, patente, mota, jatorri edo ekoizpen zehatz bati; zehaztapen horiekin batera "edo baliokidea" adieraziko da. Erreferentzia ekoetiketak direnean, "edo baliokidea" aipamena gehitzea gomendatzen da, segurtasunagatik, legeak halakorik zehaztu ez arren.



Baldintza teknikoak ezartzeko arauak buruzko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 126. artikulua araberak, zehaztapen teknikoekin batera, "edo baliokidea" aipamena aurkeztu behar da, honako hauek aipatzen direnean:

- Estatuak, Europako edo nazioarteko normalizazio-erakundeek egindako arauetan eta bestelako erreferentzia teknikoetan jasotako zehaztapenak —adibidez, Espainiako UNE arauak, Europako ENak edo nazioarteko ISOak— [126.5 b art].
- Fabrikazio, jatorri, prozedura, marka, patente, mota, jatorri edo ekoizpen jakin bat [126.6 art.], betiere, kontratuaren objektuaren deskribapen zehatz eta ulergarria beste modu batera egitea ezinezkoa dela justifikatzen bada.

Nolanahi ere, lizitazio asko oraindik honelako aipamenik egin gabe argitaratzen dira, bereziki, ingurumen-irizpideak arauak erreferentzia egiten dietenean.



Adibidez:

Arropa laua eta uniformeak hornitzeko lizitazio batean zehazten da azken produktuaren formaldehidoen edukia 75 ppm-tik beherakoa izan behar dela, ISO 14184-1: 2011 arauaren arabera neurtuta.

- Nazioarteko ISO arau horrek Europako EN arauak du bere baliokidea, bai eta Espainiako UNE arauak edo Alemaniako DIN arauak ere, besteak beste. "Edo baliokidea" jartzen ez badugu, produktuak (eta, ondorioz, eskaintzak) baztertzeko arriskua dago, emaitzak ezarritako ISO 14184 arauaren arabera ez aurkezteagatik, nahiz eta arau ofizial baliokide baten arabera zehaztapena bete.

Non dago arazoa eta nola konpondu daiteke?

Normalizazio-erakunde ofizialek egindako arauak hainbat arau eta beste erreferentzia tekniko batzuk ezartzen dituzte. Arauak eta erreferentzia horiek, askotan, berdinak dira, eta zenbaki bera ere mantentzen dute —kasu horretan erreferentzia anitza da-, UNE EN ISO 14184-1:2011 motakoa—. Beste batzuetan, arauak ez dute zenbaki bera, une desberdinetan argitaratu direlako eta normalizazio-organo bakoitzaren kodifikaziora egokitzen direlako, baina baliokideak dira.

“Edo baliokidea” jartzen ez bada, eskaintzak baztertzeko arriskua dago, baldintza-agirian ezarritako arauari buruzko dokumentazioa ez aurkezteagatik, nahiz eta arau baliokide batean ezarritako baldintza teknikoak bete; eta horren ondorioz, tratu diskriminatzailearen ondoriozko errekurtsoei aurre egiteko arriskua edo lizitazioa hutsik geratzeko arriskua dago. Hori are nabarmenagoa da, salbuespenezko arrazoiengatik, zehaztapenek marka, prozesu eta abar jakin batzuei erreferentzia egiten dietenean, eta erreferentzia horren atzean “edo baliokidea” gehitzen ez denean.



HORTAZ, HONAKO HAU ZIURTATU BEHAR DUGU:

- **Arauei erreferentzia egiten dieten zehaztapenetan, zehaztapen horiek “edo baliokidea” eraman beharko dute beti.**
- Ahal denean, **fabrikazio, jatorri, prozedura, marka, patente, mota, jatorri edo ekoizpen jakin bati erreferentzia saihestea.** Baina deskribapen behar bezain zehatza eta ulergarria egin ezin den kasuetan, nomenklatura zehatz horiek aipatu gabe, **horiekin batera “edo baliokidea” aipamena erantsiko da beti**, oso kasu justifikatuetan izan ezik².



Zein izango litzateke bertsio zuzen bat?

Orain badakigunez non zegoen akatsa eta nola zuzendu behar den zehaztapena, Kontratuei buruzko Legearen ikuspuntutik modu seguruan idatzita egon dadin, zuzendu dezagun hasieran emandako adibidea. Irizpidearen balizko bertsio bat honako hau izango litzateke:

HASIERAN

Arropa lauak eta uniformeek, azken produktuaren formaldehidoen edukia 75 ppm-tik beherakoa izan behar dute, ISO 14184-1:2011 arauaren arabera neurtuta.

ZUZENDUTA

Arropa lauak eta uniformeek, azken produktuaren formaldehidoen edukia 75 ppm-tik beherakoa izan behar dute, UNE-EN ISO 14184-1:2011 arauaren arabera neurtuta.

Nola jardun beharko litzateke ekoetiketen kasuan?



Kontratazioan (ingurumenekoak barne) etiketen erabilera arautzen duen 9/2017 Legearen 127. artikulua ez du esplizituki ezartzen “edo baliokidea” aipamena gehitu behar denik, zehaztapenek etiketen estandarretan definitutako betekizunei —guztizkoak edo partzialak— erreferentzia egiten dietenean.

Orduan, zalantza sortzen da “edo baliokidea” aipamena gehitu behar den ala ez, baldintza-agiriak ingurumen-etiketen estandarretan definitutako irizpideei erreferentzia egiten dieten zehaztapen teknikoak definitzen dituenen.

² Ogasun Ministerioaren Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiak, 164/2016 Ebazpenean, “edo baliokidea” aipamena ez sartzeko aukera jasotzen du marka, produktu, patente edo tipo jakin bati erreferentzia egiten zaionean, kontratuaren xedeak hala justifikatzen badu. Nolanahi ere, hori behar bezala justifikatuta egon behar da eta kasuz kasu aztertu behar da.





Ingurumen-etiketak edo ekoetiketak ez dira arauak, 9/2017 Legearen zentzuan, baina haien betekizunek, askotan, normalizazio-erakundeek egindako arauari edo bestelako erreferentzia teknikoari egiten diete erreferentzia. Hortaz, **preskripzio teknikoak definitzean ekoetiketaren baten betekizunak aipatzen badira, "edo baliokidea" aipamena sartzea gomendatzen da**, arriskuak minimizatzen.

Gomendio horren beste oinarri bat: zehaztapena etiketa jakin bati erreferentzia eginez definitzen bada ere, baldintza baliokideak betetzen direla egiaztatzen duten beste etiketa batzuk onartu beharko dira beti, bai eta beste frogabide egoki batzuk ere. [127.3 art.]



Adibidez:

Arropa lauak eta uniformeak Oeko-Tex 100 estandarrean edo baliokideetan definitutako substantzia kaltegarrien irizpideak bete behar dituzte azken produktuan.

Oeko-Tex 100 estandarrak ehungintzako produktuak substantzia kaltegarri buruzko irizpide ugari definitzen ditu. Irizpide horietako bakoitzerako, irizpideak betetzen diren zehazteko atalaseak eta saiakuntza- edo analisi-metodoak ezartzen dira. Saiakuntza-metodo horietako batzuk normalizazio-organismoek egindako arau edo dokumentu teknikoetan oinarritzen dira. Beraz, prebentzioari dagokionez, hobe da "edo baliokidea(k)" aipamena sartzea ekoetiketa espezifiko batean definituriko irizpideei erreferentzia egin ondoren.

Salbuespenik al dago?

Orain arte aurkeztutakoa gorabehera, zenbait kasutan ez da beharrezkoa ingurumen-irizpideetan "edo baliokidea" aipamena txertatzea. Horiek dira Europako merkatuan jardun ahal izateko edo banatuta egoteko **nahitaez bete behar diren arau, estandar edo ekoetiketen arabera definitzen dira irizpideak.**



Adibidez:

- **Hornitu beharreko telebistek "A" motakoa edo handiagoa den energia-eraginkortasuna izan beharko dute, Europar Batasuneko energia-eraginkortasunaren etiketaren arabera.**

Telebistek, energia kontsumitzen duten bestelako etxetresna elektrikoek eta produktuek bezala, legez, Europar Batasunaren energia-eraginkortasunaren etiketa izan behar dute. Beraz, ingurumen-irizpideek ekoetiketa horri erreferentzia egiten diotenean, ez da "edo baliokidea" aipamena gehituko, nahitaezko ekoetiketa bat delako (CE markaketaren antzekoa).

- **Eskola-garraioko zerbitzura bideratutako autobus guztiek EURO VI estandarra bete beharko dute.**

Europako araudiaren arabera, zenbait ibilgailu eta makinek (autobusak barne) EURO arauak, eta ez beste baliokide batzuek, homologatzeko eta Europako merkatuan sartzeko ezartzen dutenaren arabera kalkulatu behar dituzte beren emisio-mailak. Hortaz, EURO estandar jakin bat betetzea eskatzen denean, ez da sartuko baliokidetasun aukera, nahitaez bete behar den araudia delako.

Produktu bat ekoetiketa zehatz batekin ziurtatuta egon dadila eskatzea

Lizitazio batean obra, zerbitzua edo produktua ekoetiketa espezifiko batekin ziurtatuta egotea ingurumen-irizpide gisa eskatzea saihesteko, klausulek ekoetiketan zehaztutako baldintzak betetzeari egingo diote erreferentzia, eta etiketa baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko soilik eskatuko da, eta beste frogabide egoki batzuk onartu beharko dira.



Sektore Publikoko Kontratuari buruzkoa 9/2017 Legearen 127. artikuluan etiketak³ —ingurumenekoak barne— kontratazio publikoan nola erabili daitezkeen ezartzen da.

Artikulu honen arabera, etiketak kontratatu behar diren obren, zerbitzuen edo produktuen ezaugarriak definitzeko erreferentzia gisa eta ezaugarri horiek betetzen direla egiaztatzeko baliabide gisa erabili daitezke. Nolanahi ere, ez du jasotzen irizpidea zuzenean etiketa bat izatea denik. Hala, Legeak ezartzen du kontratazio-organoak:

- Etiketa espezifiko bat eska dezakete, obrek, zerbitzuek edo hornidurek eskatutako ezaugarriak (etiketa lortzeko, ulertzen da) betetzen dituztela **frogatzeko** [127.2 art.].
- Etiketa espezifiko bat adierazi arren, kontratazio-organoak baldintza-agirietan argi eta garbi zehaztu behar ditu ezarri nahi dituen ezaugarriak eta betekizunak; zehaztutako etiketek ezaugarri eta betekizun horiek betetzen direla frogatu nahi dute [127.5 art.].
- Etiketa bat lortzeko eskatzen diren baldintza batzuk ez badatoz bat kontratuaren xedearekin, edo ez bada nahi obrek, zerbitzuek eta produktuek betekizun horiek guztiak betetzea, zati bat bakarrik, klausulak eskakizunen zati bati erreferentzia eginez definitu ahal izango dira, baina adierazi egin beharko da zeini egiten zaion erreferentzia [127.2 eta 4 art.].
- Horretaz gain, etiketa espezifiko bat behar bada ere, etiketa baliokide guztiak onartu beharko dira, bai eta beste frogabide egoki batzuk ere [127.3 art.].

Hala ere, legedian oraindik argitasun falta nagusi denez, zenbait lizitaziok oraindik eskatzen dute kontratuaren xede den obra, zerbitzu edo produktua ekoetiketa espezifiko batekin ziurtatuta egon dadila.

³ Obra, zerbitzu, produktu, prozesu edo prozedura batek baldintza jakin batzuk betetzen dituela baieztatzen eta bermatzen duen edozein dokumentu, ziurtagiri edo egiaztargiri gisa definituak.





Adibidez:

Bulegoko papera hornitzeko lizitazio batean, eskatzen da paperak FSC edo PEFC ekoetiketarekin ziurtatuta egon behar duela.

- Azaldu den bezala, Legeak etiketa espezifikoa bat (kasu honetan, FSC edo PEFC) eskatzea ahalbidetzen du baldintza-agirian zehaztutako ezaugarriak betetzen direla frogatzeko, baina baliteke hori berez ez izatea irizpidea —irizpidea ezin da izan ziurtatuta egotea—.*
- FSC eta PEFC ekoetiketek hainbat paper mota ziurtatzen dute, baso-ustiapen jasangarrietako zuretik eratorritako zuntzen eta/edo zuntz birziklatuen (papera fabrikatzeko erabiltzen direnak) ehunekoaren arabera. Esate baterako, FSC papera eduki dezakegu: % 100ean baso-ustiategietatik eratorritako materialarekin fabrikatua, modu jasangarrian kudeatua, FSCk baso-ustiategietarako definitzen duenaren arabera; gutxienez, % 70ean kudeaketa jasangarriko zuntzekin eta/edo zuntz birziklatuekin fabrikatua; edo gutxienez % 85ean birziklatutako zuntzekin fabrikatua (kontsumo aurrekoa eta ostekoa).*
- Besterik gabe esaten badugu paperak FSC, PEFC edo antzeko ziurtagiriren bati izan dezala nahi dugula, ez dugu betetzen, halaber, kontratatu beharreko produktu, obra edo zerbitzuaren desiratutako ezaugarriak argi definitzeko Legean ezartzen den betebeharra: birziklatuta nahi al dugu?, % 100 ustiapen jasangarrietatik eratorritako zura?, beste ehunekorik onartzen al dugu?...*
- Produktutik espero diren ezaugarriak ez definitzeak zaildu egiten du beste hautabidezko frogabide batzuk onartu behar izatea, ekoetiketa baliokideak zein bestelako dokumentazioa izan.*
- Hortaz, irizpide gisa ziurtatuta egon dadila eskatzeak urratu egiten ditu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak preskripzio teknikoaren definizioari eta etiketen erabilerari buruz ezartzen dituen zerbait baldintza.*

Non dago arazoa eta nola konpondu daiteke?

Akats horren arrazoi nagusia, ingurumen-irizpideei dagokienez, 127. artikulua idazketa bera da. Artikulu horrek ezartzen duenaren arabera, etiketa espezifikoa bat eska daitekeen arren, frogabide gisa ere erabili daiteke.

Bigarren horren oinarria da baldintza-agirietan argi eta garbi zehaztu behar direla ezarri nahi diren ezaugarriak eta betekizunak, eta beste frogabide egoki batzuk onartu behar direla.

Kontuan izan behar da ingurumen-etiketa edo ekoetiketa gehienak borondatezkoak direla, eta enpresa guztiek, batez ere ETEek, ez dituztela beren produktuak edo zerbitzuak ziurtatzeko baliabideak, nahiz eta lortu nahi diren baldintzak bete. Obrak, zerbitzuak edo produktuak ziurtatuta egon daitezkeen eskatzea diskriminatzailea izango litzateke, eta lizitatuzaileak desberdin tratatzea ekar lezake; eta hori, kontratazio guztietan errespetatu beharreko oinarrizko printzipioen aurka joango litzateke.

Horregatik, Legeak ezartzen du ekoetiketak erreferentzia gisa erabili daitezkeela ezaugarriak definitzeko, eta frogabide gisa eska daitezkeela; betiere, beste ekoetiketa batzuk edo egiaztagiri baliokideak onartuz.





HORTAZ, EKOETIKETEKIN LOTURIKO INGURUMEN-KLAUSULAK DEFINITZEN DITUGUNEAN:

- Irizpide gisa, **ez da eskatuko obra, zerbitzua edo produktua ziurtatua egon dadila.**
- Ingurumen-irizpideak **ekoetiketa** espezifikoa **eskuratzeke ezarritako baldintzei** —guztiei edo batzuei— **erreferentzia eginez definituko dira.**
- Pertsona edo enpresa lizitatuak aurkeztu beharreko dokumentazioan, **ekoetiketa** aurkezteko **eska daiteke** —ziurtagiria edo etiketa produktuan—, **baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeke.** Era berean, **beste etiketa edo egiaztagiri batzuk onartuko direla adierazi behar da**, baldin eta lizitatuak egiaztatzen badu ezarritako baldintzen baliokideak direla.

Ingurumen-etiketen erabilerari buruzko argibide eta jarraibide gehiago nahi izanez gero, ihobek argitaratutako **“Erosketa eta kontratazio publiko berdean ingurumen-ziurtagiriak erabiltzeari buruzko gida praktikoa”** kontsulta dezakezue.



Zein izango litzateke bertsio zuzen bat?

Orain badakigunez zeintzuk diren jarraibideak zehaztapena Kontratuei buruzko Legearen ikuspuntutik modu seguruan idatzita egon dadin, zuzendu dezagun hasieran emandako adibidea. Irizpidearen balizko bertsio bat honako hau izango litzateke:

HASIERAN

Inprimatzeko papera FSC edo PEFC ekoetiketarekin ziurtatuta egon behar da.

ZUZENDUTA

Inprimatzeko papera, gutxienez % 70ean, zur-zuntzez eginda egon behar da, baso-ustiapen jasangarrietatik eta/edo birziklatuetatik eratorriak, FSC edo PEFC estandarrek edo baliokideak definitzen duenaren arabera.

Frogabide gisa, honako hauek aurkeztuko dira: eskainitako paperaren fabrikatzailearen FSC edo PEFC zaintza-katearen ziurtagiriak edo baliokideak; FSC edo PEFC ekoetiketa edo baliokidea agertzen den paperaren dokumentazio grafikoa; edo baliokidetasuna frogatzen duen bestelako hautabidezko dokumentazioa.

- Idazketa honen bidez, argi uzten da paperak zehazki zer baldintza bete behar dituen: gutxienez % 70ean zuntz birziklatuen nahasketarekin edo nahasketarik gabe modu jasangarrian kudeatutako baso-ustiategietako zur-zuntzekin fabrikatuta egotea, eta baso-ustiategi jasangarriei eta/edo birziklatuen zuntzei ematen zaien definizioak bat etorri behar du FSC, PEFC edo beste sistema baliokide batek ezarritako baldintzekin.
- Ekoetiketak erreferentzia gisa erabili ohi dira paperak bete behar dituen ezaugarriak definitzeko; ez da eskatzen papera ziurtatuta egon dadila.
- FSC edo PEFC ziurtagiriak edo baliokideak aurkeztu behar dira egiaztagiri gisa, baina beste dokumentu batzuk aurkez daitezke⁴.

⁴ Informazio tekniko gehiago nahi izanez gero, ihobek argitaratutako **“FSC eta PEFC ziurtagiriak eta horien erabilera kontratazio publikoan”** dokumentua kontsulta daiteke.

Gero AKPAn jasotzen ez diren balorazio-irizpideak iradokitzea

Kontratazio-agirietan zenbait ezaugarri betetzen dituzten eskaintzei "lehenasuna emango zaiela" iradokitzen denean, baina gero hori ez bada islatzen adjudikazio-irizpideetan, baldintza-agiriek argiak eta gardenak izateari uzten diote. Hori saihesteko, baloratu daitekeen edozein alderdiren aipamena administrazio-agiriko adjudikazio-irizpideen atalera mugatu beharko litzateke. Estiloaren arabera, baldintza-agiri teknikoan baloratu daitezkeen alderdiak aipatzen badira, baldintza-agiri biak alderatu beharko dira, baldintza-agiri teknikoan aipatutako lehenasuneko alderdi guztiak administrazio-agirian jaso eta baloratzen direla eta bi dokumentuen artean inkongruentziarik ez dagoela ziurtatzeko.

Oro har, lizitazio bat prestatzen denean, kontratatu beharreko produktuaren, obraren edo zerbitzuaren nahitaezko ezaugarri guztiak preskripzio teknikoan baldintza-agirian definitzen dira, eta administrazio-klausulen baldintza-agirian, besteak beste, ekonomikoki onuragarriena den eskaintza alderatzeko eta hautatzeko erabiliko diren adjudikazio-irizpideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa zehazten dira.

Batzuetan, kontratuaren xedearen azalpenarekin koherentea izateko, baldintza teknikoan baldintza-agirian aipatzen dira lehenasuna emango zaien alderdi teknikoak, eta, ondorioz, aditzera ematen dute kontuan hartuko direla eskaintzak baloratzen direnean. Hala ere, batzuetan, "lehenasuneko" alderdi horiek ez dira geroago jasotzen administrazio-agiriko adjudikazio-irizpideetan.



Adibidez:

Eraikinen garbiketa-zerbitzurako lizitazio batean, baldintza-agiri teknikoak jasotzen du lehenasuna emango zaiela garbiketa-produktu mota gutxien erabiltzen dituzten eta Europar Batasuneko Etiketa Ekologikoan definitutako substantzia arriskutsuen irizpideak edo baliokideak betetzen dituzten eskaintzei; eta, ondoren, administrazio-agiriak BAKARRIK jasotzen du substantzia arriskutsuen irizpideak betetzen dituzten garbiketa-produktuen ehunekoak baloratuko dela.

- Agiri teknikoa idazteak aditzera ematen du adjudikazioa bi alderdi baloratuko direla:
1) garbiketa-produktu mota gutxiago eta 2) ingurumenari dagokionez horiek hobek izatea.
- Hala ere, adjudikazio-irizpideetan alderdi bakarria baliosten da, zeinak substantzia arriskutsuen presentziaren bigarren irizpidea bakarrik barne hartzen baituen, eta ez produktu mota gutxien dituen lehena.

Non dago arazoa eta nola konpondu daiteke?

Ondoren administrazio-agirian jasotzen ez diren balorazio-irizpideak iradokitzearen arazoa da (agirien arteko inkongruentziak gain) nahasmena sortzen dela enpresa edo pertsona lizitatzailen artean. Litekeena eta zilegi da horietako batzuek kontsultak egitea kontratu-organoari, eta horiei erantzun egokia eman beharko die, baldintza-agirietan zuzenketak egin eta prozedura osoan atzerapenak izateko arriskuarekin.





HORI SAIHESTEKO:

- Aukerarik onena da **baldintza-agiri teknikoan ez aipatzea** eskaintzak hautatzeko **lehenasunezko alderdiei buruzko ezer eta horiek administrazio-agiriaren** adjudikazio-irizpideetan **bakarrik sartzera mugatzea**.
- Bestela, baldintza-agiri teknikoa prestatzeko moduagatik, baloratu nahi diren alderdi teknikoak aipatu nahi badira baldintza-agirian, preskripzioak egiteko ardura duten lizitazioa sustatzen duten zerbitzu teknikoek **baldintza-agiri biak erkatu** beharko dituzte (beraiek egin edo ez), **inkongruentziarik ez dagoela ziurtatzeko** eta eskaintzen ebaluazioan "lehenasuna emango zaien" alderdi guztiak administrazio-agiriaren adjudikazio-irizpideetan behar bezala jasota daudela ziurtatzeko.



Zein izango litzateke bertsio zuzen bat?

Aurkezturiko gomendioen arabera, honako hauek izango lirateke aurreko irizpidea zuzentzeko hiru modu posible:

HASIERAN

Agiri teknikoak jasotzen du lehenasuna emango zaiela garbiketa-produktu mota gutxien erabiltzen dituzten eta Europar Batasuneko Etiketa Ekologikoan definitutako substantzia arriskutsuen irizpideak edo baliokideak betetzen dituzten eskaintzei; eta, ondoren, administrazio-agiriak BAKARRIK jasotzen du substantzia arriskutsuen irizpideak betetzen dituzten garbiketa-produktuen ehunekoa baloratuko dela.

ZUZENKETA 1. AUKERA

Agiri teknikoan baloratu beharreko alderdi bat ere ez aipatzea eta administrazio-agirian baloratu nahi diren alderdiak soilik sartzea

ZUZENKETA 2. AUKERA

Agiri teknikoaren idazketa administrazio-agirira egokitzea, honako hauek zehaztuz:

- Lehenasuna emango zaie garbiketa-produktuak erabiltzen dituzten eskaintzei, baldin eta Europar Batasuneko Etiketa Ekologikoan definitutako substantzia arriskutsuen irizpideak edo baliokideak betetzen badituzte.⁵

ZUZENKETA 3. AUKERA

Administrazio-agiriaren idazketa baldintza-agiri teknikora egokitzea, honako hauek zehaztuz:

- Garbiketa-produktu mota gutxiago izatea hartuko da kontuan; horretarako, zerbitzuan erabiliko diren produktu guztien zerrenda aurkeztu beharko da.
- Europar Batasuneko Etiketa Ekologikoan edo baliokideetan definitutako substantzia arriskutsuen irizpideak betetzen dituzten garbiketa-produktuen ehunekoa hartuko da kontuan.⁵

⁵ Zehatz-mehatz zehaztu beharko da irizpide bakoitzari emango zaion puntuazioa eta balorazio hori eta puntuen banaketa nola egingo den (ikus 5. eta 6. akatsa).

Balora daitezkeen ingurumen-irizpideak txertatzea, nola baloratuko diren zehaztu gabe

Baldintza-agirian ez bada argi zehazten adjudikazio-irizpideetako puntuak nola baloratu eta banatuko diren, areagotu egiten da eskaintzak ebaluatzeko zailtasuna eta diskriminatzaileak izateko arriskua. Hori saihesteko, funtsezkoa da adjudikazio-irizpideak baldintza-agirian zehatz, argi eta objektiboki definitzea, eta beti puntuazioa eta banatzeko modua jasotzea.



Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 145. artikulua arabera (kontratua adjudikatzeko betekizunei eta irizpide motei buruzkoa), irizpide horiek honako hauek bete behar dituzte [145.5 art.]:

- Kontratuaren xedearekin lotuta egon behar dira.
- Modu objektiboan formulatu behar dira, berdintasunaren, proportzionaltasunaren, diskriminaziorik ezaren eta gardentasunaren printzipioak errespetatuz.
- Eskaintzak lehia eraginkorreko baldintzetan ebaluatzeko aukera eman behar dute, eta eskaintzek zehaztutako irizpideak zenbateraino betetzen dituzten ebaluatzeko aukera ematen duten zehaztapenekin batera joan behar dute.

Are gehiago, "hobekuntzak" baloratzen direnean, hobekuntzen betekizunei, mugei, modalitateei eta ezaugarriei dagokienez, behar bezala zehaztuta egon behar dira [145.7 art.].

Gainera, baldintza-agirian adierazi behar dira irizpide bakoitzaren haztapan erlatiboa [146.3 art.] eta balorazio-formula —balorazio automatikoko irizpideen kasuan—. [146.2 art.].

Hala ere, oraindik ere, kasu askotan, adjudikazio-irizpideak (ingurumen-irizpideak, besteak beste) ez daude behar bezala definituta, baloratzeko moduari eta horietako bakoitzaren puntuazioa banatzeko moduari dagokienez.



Adibidez:

Erakunde publiko baten elikadura-zerbitzurako lizitazio batean, honako hau ezartzen da adjudikazio-irizpideetan:

Elikadura-produktu jasangarriagoak: 20 puntu, gehienez.

Kontuan hartuko da lizitatzailerik asteko menuetan nekazaritza ekologikoko elikagaien ehuneko handiagoa erabiltzeko konpromisoa hartzea, 834/2007 Erregelamenduaren edo ondorengoan arabera.

- *Irizpidea bera behar bezala definitu bada ere, eta produktu jasangarriagoei dagokienez baldintza-agiriak Europako erregelamenduaren arabera nekazaritza ekologikotik datozenak aipatzen dituela zehaztu bada ere, oraindik hainbat alderdi falta dira irizpidean argi gera dadin nola baloratuko den.*
- *Ez da adierazten zer den ehunekoa (pisuan, produktu-kopuruan...), zer hartuko den ebaluaziorako oinarritzat (produktuen zerrenda bat, asteko edo hileko menu-proposamen bat), ez eta puntuak zehazki nola banatuko diren ere (tarteka, formularen bidez...).*
- *Irizpidea, berez, ondo definituta dago, baina akatsa da falta dela zehaztea zeintzuk izango diren parametro zehatzak balorazioa egiteko.*

Non dago arazoa eta nola konpondu daiteke?

Adjudikazio-irizpideak nola baloratuko diren eta eskaintzen artean puntuak nola banatuko diren zehaztean zehaztasunik ez dagoenez, hainbat arazo sortzen dira, bai organo kontratatzaileentzat, bai lizitatzzaileentzat:

- **Lizitatzzaileentzako**, zaildu egiten du zehatz-mehatz jakitea zer baloratuko den eta nola, horrela, organo kontratatzailearen beharretara ondoen egokitzen diren eskaintzak eta dokumentazioa aurkeztu ahal izateko; eta, ondorioz, areagotu egiten da eskaintzen ebaluazioan arbitrariotasun-sentimendua eta balizko diskriminazio-sentimendua.
- **Kontratu-organoezako**, zehaztugabetasun horrek zaildu egiten du eskaintzak objektiboki, diskriminaziorik gabe eta, batez ere, gardentasunez ebaluatzea. Horrek, eskaintzen ebaluazio konparatiborako behar den denbora, eskaintza bakoitzari emandako puntuazioa justifikatzeko beharra eta baldintza-agiriak edo adjudikazioa aurkaratzeko arriskua areagotzen ditu, epeak luzatuz eta gastu gehigarriak eraginez.



HORI SAIHESTEKO

Ziurtatu behar dugu adjudikazio-irizpide guztiak **zehaztasunez, argi eta objektiboki definituta daudela** baldintza-agirian, eta beti **barne hartzen dituela puntuazioa eta hura banatzeko modua** —formularen bidez edo balio-judizioaren parametroen bidez—.



Zein izango litzateke bertsio zuzen bat?

Orain badakigunez non zegoen akatsa eta nola zuzendu behar den zehaztapena, Kontratuei buruzko Legearen ikuspuntutik modu seguruan idatzita egon dadin, zuzendu dezagun hasieran emandako adibidea. Hainbat modu posible daude; hona hemen horietako bi:

HASIERAN

Elikadura-produktu jasangarriagoak: 20 puntu, gehienez.

Kontuan hartuko da lizitatzzaileek elikagai jasangarrien ehuneko handiagoa erabiltzeko konpromisoa hartzea, nekazaritza ekologikokoak direlako 834/2007 Erregelamenduaren edo ondorengoen arabera.

ZUZENKETA 1. AUKERA: PISUAREN ETA ASTEKO MENUAREN ARABERA

Elikadura-produktu jasangarriagoak: 20 puntu, gehienez.

Kontuan hartuko da lizitatzzaileek beren asteko menuetan elikagai jasangarrien ehuneko handiagoa (pisuari dagokionez) erabiltzeko konpromisoa hartzea, nekazaritza ekologikokoak direlako 834/2007 Erregelamenduaren edo ondorengoen arabera. Balorazio hori egiteko baldintza-agiriaren I. eranskinaren arabera eskaintzan sartu beharreko asteko menu mota bat hartuko da kontuan. Menu horretan, plater bakoitzerako, honako informazio hau jasoko da:

Platera	Osagaiak	Gramoak	Ekoizlea	Nekazaritza ekologikoa (bai/ez)
---------	----------	---------	----------	---------------------------------

Puntuak nekazaritza ekologikoko produktuen ehunekoaren arabera banatuko dira, guztizkoari dagokionez: 0 puntu (% 0) eta 20 puntu (% 100) artean, honako formula honen arabera:

$$\text{Puntuak}_{\text{ESKAINZA}} = \text{Puntuak}_{\text{GHEIENEOAK}} \times \text{Ehunekoa}_{\text{ESKAINZA}} / \text{Ehunekoa}_{\text{GHEIENEOAK}}$$

- Idazketa honekin, adjudikazio-irizpidea guztiz argia, objektiboa eta gardena da, bai irizpideari berari dagokionez, bai eskaintzak ebaluatzeko moduari dagokionez (pisuari dagokionez eta eskaintza berean aurkeztutako ereduazko asteko menu bati dagokionez), bai puntuak banatzeko moduari dagokionez (ezarritako formularen arabera).
- Horrela, eskaintzak berdintasunez tratatzen direla eta ebaluazio berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko baldintzetan gauzatzen dela bermatzen da. Gainera, kontratuaren betearazpenaren jarraipena egiteko ikuspegi posible bat ematen du.

ZUZENKETA 2. AUKERA: ZERRENDA BATEKO ELIKAGAI KOPURUAREN ARABERA

Elikadura-produktu jasangarriagoak: 20 puntu, gehienez.

Kontuan hartuko da lizitatuzaileek platerak gertatzerakoan elikagai jasangarri gehiago erabiltzeko konpromisoa hartzea, nekazaritza ekologikokoak direlako 834/2007 Erregelamenduaren edo ondorengoaren arabera.

Hori baloratzeko, lizitatuzaileek kontratua gauzatu bitartean erabiltzeko konpromisoa hartzen duten nekazaritza ekologikoko elikagaien zerrenda hartuko da kontuan, baldintza-agiriaren I. eranskinaren arabera:

Elikagaia	Ekoizlea	Nekazaritza ekologikoa (bai/ez)
Azenarioak		
Patatak		
Sagarrak		
... (10 produkturaino, esaterako)		

Puntuak nekazaritza ekologikoko produktuen kopuruaren arabera (taulako guztizkoarekin alderatuta) banatuko dira, eta produktu bakoitzak 2 puntu izango ditu.

- Lehen bezala, adjudikazio-irizpidearen idazketa erabat argia eta gardena da, eskaintzen bidezko tratua eta berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko ebaluazioa bermatzen du, eta kontratuaren jarraipena egiteko ere balio dezake.
- Produktuen zerrendan uste bada denek ez dutela pisu bera izan behar —kopuru desberdinetan kontsumitzen direlako—, puntuazioa “sofistikatu” daiteke, taulan zutabe bat sartuz produktu bakoitzaren haztapan-koefiziente batekin —horren guztizko batura gehieneko puntuazioari dagokiona izango da (gure adibidean, 20)— eta haztapan hori eskaintzaren puntuaziara aldatzeko erabiltzen den formula sartuz, mota honetakoa:

$$\text{Puntuak}_{\text{ESKAINZA}} = \sum (i \text{ Elikagaia} \times i \text{ Koefizientea}) / \text{Puntuak}_{\text{GEHIENEOAK}}$$



Formularen bidez balora daitezkeen ingurumen-irizpideak balio-judizioaren bidez balora daitezkeenekin nahastea

Ingurumeneko adjudikazio-irizpideak ez dira zuzenean balio-judizioaren bidez balora daitezkeen irizpideak, irizpidearen arabera baizik. Beraz, irizpide bakoitza banaka aztertu behar dugu — ez ingurumen-irizpide bakarren taldekatuta—, eta ahalik eta modu argi eta zehatzenean definitu behar dugu, Kontratuei buruzko Legeak eskatzen duen bezala. Horrela, ingurumen-balorazioko irizpideak balio-judizioko irizpide gisa sartzea saihestuko dugu, formula bidez automatikoki balora daitezkeen irizpideak izan arren.



Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak bi adjudikazio-irizpide mota bereizten ditu: baldintza-agirietan ezarritako formulak ezarri automatikoki balora daitezkeenak eta beren balorazioa eta kuantifikazioa balio-judizio baten mende dutenak [146.2 art.]; eta artikuluko berak nagusitasuna ematen die automatikoki balora daitezkeen irizpideei, adjudikatzeko hainbat irizpide erabiltzen direnean.

Bereizketa hori dagoeneko sartu zen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan; eta ordutik, ingurumeneko adjudikazio-irizpideak balio-judizioaren bidez ebaluatzeko irizpide gisa sailkatu dira zuzenean, ingurumen-arlokoak direlako soilik, nahiz eta, hein handi batean, formularen bidez automatikoki baloratzeko modukoak izan.



Adibidez:

Udaleko lorezaintza-zerbitzurako lizitazio batean honako hau ezartzen da:

BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK

Zerbitzuaren ingurumen-inpaktu negatiboak murrizteko neurriak (20 puntu, gehienez). Kontratua gauzatzean, kontuan hartuko dira uraren kontsumoari, hondakinen sorrerari —landareak barne—, karga toxiko hobea duten produktuen erabilerari eta ibilgailuen ingurumen-kalitateari dagokienez, ingurumen-inpaktu negatiboak murrizte aldera lizitatuzaileek ezartzeko konpromisoa hartuko duten neurrien kalitatea eta egokitasuna.

- Irizpide horien arabera, lizitazioan lau alderdi hartu nahi dira kontuan: ura aurrezteko neurriak, hondakinak minimizatzeko neurriak, hain kaltegarriak ez diren produktuen erabilera eta flotaren ingurumen-kalitatea. Horiek guztiak ingurumen-arlokoak direnez, adjudikazio-irizpideak balio-judizio bidezko balorazio-irizpideen atalean sartu dira, irizpide bakar batean bilduta.*
- Lehenengo bi alderdietarako —ura aurrezteko eta hondakinak minimizatzeko neurriak—, lizitatuzaileei malgutasuna eman nahi bazaie beraiek beren gaitasunetan eta lan-prozesuetan oinarrituta neurri egokienak proposa ditzaten, zentzuzkoa da balio-judizioaren bidez baloratzea. Neurrien ebaluazioa ezin da automatizagarria izan, eta proposamenen ebaluazio teknikoak eskatzen du, balio-judizioaren bidez baloratzea justifikatzen duena.*
- Aldiz, beste bi alderdiak —hain kaltegarriak ez diren produktuenak eta ibilgailuen flotaren ingurumen-kalitatearenak— zentzuzkoagoa da formula bidez ebaluatzea, erraz automatiza baitaitezke. Ingurumen-izaera izateak eta beste bi alderdiak balio-judizioaren bidez ebaluatuta egoteak ez du esan nahi ingurumen-irizpide guztiek hala izan behar dutenik.*

Non dago arazoa eta nola konpondu daiteke?

Hainbat arrazoi daude, zenbaitetan, ingurumeneko adjudikazio-irizpideak balio-judizioaren arabera balorazio-irizpide gisa sartzeko (nahiz eta irizpide horiek automatikoki formula bidez balora daitezkeen), hala nola, enpresek zer aurkez dezaketen ez jakitea edo irizpidea formula bidez automatikoki ebalua daitezkeen zerbait nola bihur daitezkeen ez jakitea.

Hala ere, formularen bidez automatikoki baloratzen diren irizpideen ordez balio-judizioko irizpideak jartzeak hainbat eragozpen ditu:

- Alde batetik, eskaintzak ebaluatzea eta alderatzea zailago eta nekezago egiten du, puntuazioak hobeto justifikatu behar direlako. Automatikoki balora daitezkeen irizpideak sinpleagoak dira baloratzeko.
- Balio-judizioko irizpideak daudenean, lizitatuzaileek aurkaratzeko arrisku handiagoa dute —adibidez, adjudikaziodun ateratzen ez badira, kontratu-organoak tratu diskriminatzailea eman dezakeela sentitzeagatik—.
- Bestalde, irizpide horiek automatikoki ebalua daitezkeen irizpideak baino haztapen handiagoa badute, eskaintzak baloratzeko prozesua konplexuagoa bihurtzen da, adituen batzorde batek baloratu behar baitu [146.2a art.].
- Gainera, horrek sarritan esan nahi du irizpide ekonomikoak pisu handiagoa duela (haztapen hori ez gaintzeko) eta ingurumen-irizpideek garrantzi txikiagoa dutela, automatikoki balora daitezkeen irizpideak balira eman ahal izango litzaiekeena baino. Hain zuzen zere, 9/2017 Legeak ezartzen duenaren arabera, formulak ezarriz balora daitezkeen irizpideak lehenetsiko dira [146.2 art.].



ARAZO HORIEK EKIDITEKO, HONAKO HAUEK EGIN BEHAR DITUGU:

- **Ez auresuposatzea** ingurumen-irizpide bat denez balio-judizioaren arabera baloratu behar dela.
- **Ingurumeneko adjudikazio-irizpideak argi, objektiboki eta gardentasunez definitzea.** Ingurumen-irizpideak, hein handi batean, oso teknikoak eta zehatzak dira; beraz, ahalik eta modu objektiboan idazten badira, horietako asko, formularen bidez automatikoki baloratu daitezke, eta ez daude interpretazioaren edo balio-judizioaren mende.
- Ingurumeneko **adjudikazio-irizpideak bereiztea**, baloratzen diren alderdien arabera, guztiak multzo berean bildu beharrean. Ingurumen-hobekuntza guztiak irizpide bakarrean biltzen ditugunean, balio-judizioaren bidez balora daitezkeen irizpideak automatikoki erraz balora daitezkeen beste batzuekin nahasten dira. Horregatik, hobe da alderdi bakoitza banaka aztertzea, alderdi bakoitza ebaluatzeko modurik onena zein den ikusteko. Horrela, alderantzizko errorea ere saihesten da, balio-judizioaren zati bat izan dezaketen balorazioetan formula matematikoak erabiltzea.

Laguntzeko, Ihoberen **Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Irizpideak** kontsulta ditzakegu (<https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>). Irizpide horietako gehienek automatikoki balora daitezkeen irizpideen edo balio-judizioaren bidez balora daitezkeen irizpideen arteko bereizketa egiten dute.



Zein izango litzateke bertsio zuzen bat?

Gomendio horietatik abiatuta, hasieran emandako adibidearen bertsio zuzendu bat honako hau izan daiteke:

HASIERAN

BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK

Zerbitzuaren inpaktu negatiboak murrizteko neurriak (20 puntu, gehienez). Kontratua gauzatzean, kontuan hartuko dira uraren kontsumoari, hondakinen sorrerari —landareak barne—, karga toxiko hobea duten produktuen erabilerari eta ibilgailuen ingurumen-kalitateari dagokienez, ingurumen-inpaktu negatiboak murrizte aldera lizitzaileek ezartzeko konpromisoa hartuko duten neurrien kalitatea eta egokitasuna.

ZUZENDUTA

BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK

Ura aurrezteko eta hondakinen sorrera minimizatzeko neurriak (10 puntu, gehienez). Kontuan hartuko dira kontratua gauzatzen den bitartean uraren kontsumoa eta hondakinen sorrera —landareak barne— murrizte aldera lizitzaileek ezartzeko konpromisoa hartuko duten neurrien kalitatea eta egokitasuna.

AUTOMATIKOKI BALORATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

• Ibilgailuaren flotaren ingurumen-kalitatea (6 puntu, gehienez).

Kontuan hartuko da kontratua gauzatzeko adjudikatutako ibilgailu-flotak gas kutsatzaileen (DGTren sailkapenaren arabera) emisio txikiagoak izatea.

Ibilgailu bakoitzari koefiziente bat esleituko zaio, bakoitzaren DGT motaren arabera, batez besteko aritmetikoa kalkulatu da eta formula hau ezarriko da eskaintzaren puntuazioa ezartzeko:

$$\text{Puntuak}_{\text{ESKAINZA}} = \text{Puntuak}_{\text{GHEIENEOAK}} \times \text{Batezbestekoa DGT}_{\text{ESKAINZA}} / 6$$

Koefizientea	DGT mota
6	ZERO
4	Eco
2	C
0	B edo ezaugarririk gabe

Horretarako, honako taula hau aurkeztu beharko da, behar bezala beteta, ibilgailu guztiak kontratu honi eta DGTren etiketen dokumentazioari esleituta egon behar dira eta ibilgailuen matrikula emandako informazioarekin bat etorri behar da:

Marka	Modeloa	Matrikula	Erregai	DGT mota
-------	---------	-----------	---------	----------

• Hain kaltegarriak ez diren produktuak (4 puntu, gehienez).

Kontua hartuko da kontratua gauzatzen den bitartean lizitzaileek erabiltzen dituzten produktuek honako irizpide hauek betetzea:

- Produktu biozidak edo fitosanitarioak ez daitezela egon sailkatuta edo etiketatuta 1272/2008 (EE) Erregelamenduaren eta ondorengo zuzenketen arabera arrisku-ohar hauetakoren batekin: H300, H301, H310, H311, H314, H330, H331, H340, H350, H360F, H360D, H360FD, H360Fd, H360Df, H361f, H361d, H361fd, H362, H370, H372, H400, H410, H411 edo EUH059 (2 puntu, gehienez).
- Konpostak edo konpost asko duten lur-medeapenek Europako Etiketa Ekologikoaren lur-medeapenetan edo labore-substratuetan edo baliokideetan dauden konposizio- eta substantzia-irizpideak bete ditzatela (2 puntu, gehienez).

Bi kasuetan puntuazioa honako formula hauen arabera banatuko da:

$$\text{Puntuak}_{\text{ESKAINZA}} = \text{Puntuak}_{\text{GHEIENEOAK}} \times \text{betetzen duten produktuen ehunekoa}_{\text{ESKAINZA}}$$

Horretarako, kontratuan zehar erabiliko diren produktu biozida edo fitosanitarioen eta konpostaren edo lur-medeapenen zerrenda aurkeztu beharko da, bai eta ekoetiketaren segurtasun-fitxak eta/edo ziurtagiriak edo ordezkio dokumentazio egokia ere.

Produktu mota	Izen komertziala	Esaldi arriskutsuak	EU ekoetiketa-irizpideak betetzen ditu (bai/ez)
---------------	------------------	---------------------	---

- Nahiz eta, hasieran, kontratazioaren baldintza-agiriak prestatu bitartean irizpideak horrela definitzea konplexuagoa dirudien arren, horrek asko errazten du eskaintzak kontratua adjudikatu bitartean ebaluatzea.
- Irizpide bakoitza ahalik eta ondoen ebaluatzen da, dena irizpide bakar batean sartu gabe; horrela, murriztu egiten da balio-judizioaren bidezko ebaluazioen "arbitrarioritasun-marjina" eta, beraz, baita baliabide-arriskua ere.

Lizitazaileak ingurumena kudeatzeko sistema bat duela baloratzea

Enpresa lizitazaileek kontratuan zehar ingurumen-portaera hobea izan dezatela behar bezala balioesteko, ez da haiek ingurumen-kudeaketako sistema ziurtaturen bat izan dezatela balioesteko akatsa burutu behar; aitzitik, kontratazio-organoarentzat benetan garrantzitsuak diren ingurumen-alderdiei dagokienez hura gauzatzean ezarriko dituzten neurri zehatzak balioetsi behar dira.



Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak enpresa edo pertsona lizitazaileen kaudimenari buruzko 3. azpiatalean soilik jasotzen ditu ingurumen-tarako sistemak —kontratu mota guztietarako, hornidura-kontratueterako izan ezik [88., 90. eta 91. art.]—.

Hala eta guztiz ere, ez da arraroa lizitazaileak Europar Batasuneko EMAS sistemari edo Europako edo nazioarteko beste arau batzuei (ISO 14001, adibidez) jarraikiz ingurumen-kudeaketako ziurtagiriak izatea kontuan hartzen duten kontratazio-agiriak aurkitzea; eta hori, bai obra-kontratueterako, bai zerbitzueterako, bai eta horniduretarako ere, nahiz eta Legeak ez duen zerrendatzen hornidura-kontratueterako kaudimen-aukeren artean [89. art.].



Adibidez:

Urbanizazio-obra batzuetarako lizitazio batean, BALORAZIO AUTOMATIKOA adjudikatzeko irizpide gisa ezartzen da enpresa lizitazaileek ingurumen-kudeaketako EMAS ziurtagiria edo baliokidea izatea.

Non dago arazoa eta nola konpondu daiteke?

Baldintza-agiriaren elaborazioan parte hartzen duten pertsona askok lizitazaileek ingurumen-kudeaketarako sistemak (ekoetiketa bat bezala) izatea kontuan har dadila nahi dute, horrek, lizitazio askotan ingurumen-arloko gutxieneko batzuk sartzea erraztuko lukeelako. Hala ere, hori ez dator bat 9/2017 Legean aurreikusitakoarekin; izan ere, lege horretan, kaudimen gisa,

"[...] enpresaburuak kontratua gauzatzean ezarri ahal izango dituen ingurumen-kudeaketako neurriak adieraztea" baino ez da aurreikusten; betiere, egokitzat eta kontratuaren xedearekiko proportzionaltzat jotzen bada.

Praktika errepikakorak ikusita eta kontratazio publikoaren arau-esparruaren bilakaera kontuan hartuta, Ogasun Ministerioaren Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiak, 786/2019 Ebazpenean, honako hau adierazten du:

"[...] Europar Batasuneko ordenamenduaren bilakaerak, eta, bereziki, kontratazio publikoaren arloko 9/2017 Lege berriarenak, zehaztu egin behar izan du auzitegi honek auzi eztabaidagarriari buruz duen doktrina, zehazki, ISO ziurtagiri baten eskuragarritasuna konfiguratzeko aukerari buruzkoa, ez soilik enpresa-kaudimenaren irizpide gisa, baita adjudikazio-irizpide gisa ere".

Bertan, honako hau argitzen da:

"[...] ziurtagiri horiek adjudikazio-irizpide gisa onartu ahal izateko, kontratuaren xedearekin lotura argia izan behar dute [...]"



eta kontratuaren xedearekin lotuta dagoela ulertuko da

"kontratu horren arabera egin beharreko prestazioak aipatzen edo barne hartzen dituzenean [...]".

Nolanahi ere, Auzitegiaren arabera:

"[...] errekurritutako baldintza-agirian eskatzen diren ziurtagiriak enpresaren ekoizpen-prozesu guztiei egiten diete erreferentzia, hau da, enpresaren beraren ezaugarri bati, baina ez prestazioaren berezko ezaugarri bati, aukera emango duena, 24/2014 Zuzentarauaren adjudikazio-irizpideetarako 92. puntuan eskatzen den bezala, "eskaintza bakoitzak kontratuaren xedearen arabera duen errendimendu-mailaren ebaluazio konparatiboa egiteko" [...].

"[...] horrek esan nahi du adjudikazio -irizpide gisa sartutako ingurumen- edo gizarte-alderdiek eragina izan behar dutela eskatutako prestazio zehatzaren emaitzan, eta eskaintzen berezko kalitateari buruzko ebaluazio konparatiboa ahalbidetu behar dutela. Hori ez da gertatzen adjudikazio-irizpide gisa enpresaren ingurumen-, gizarte- edo korporazio-politikaren ezaugarri orokorrak eratzen direnean [...] eta ez prestazio zehatzaren berezko ezaugarriak [...]».

Enpresa lizitatzailen nolakotasunaren eta kontratuaren xedearekin lotutako eskaintzen nolakotasunaren arteko alde hori argiago agertzen da 632/2018 ebazpenean, berdintasun-plan bat izatearen balorazioari dagokionez.

9/2017 Legeak jasotzen duen moduan, kontratua gauzatzean aplikatuko diren berdintasun-planak balora daitezke, baina hori ez da gertatzen lizitatzailerek kontuan hartzen dutenean enpresa osorako plan bat izatea. Enpresa batek berdintasun-plan bat izan lezake bere osotasunean, baina ezingo luke ezarri berdintasun hori kontratu espezifikoko gauzatzean.

632/2018 Ebazpenean jasotzen denaren arabera:

«[...] SPKLren 145. artikulua urratzen da honako kasu honetan: "irizpidea enpresa lizitatzailen ezaugarri subjektibo bati dagokionean, (...) enpresa lizitatzaileretako langile guztiak orokorrean kontuan hartzean, balorazio-irizpideak ez du zerikusirik kontratuaren xedearekin, eta ez dio kalitate-rik gehitzen lizitatzailen bakoitzaren eskaintza teknikoari; aitzitik, enpresaren aurkeztutako eskaintzetatik kanpoko ezaugarri bat baino ez du baloratzen"».

Arazo bera tratatzen duten beste ebazpen batzuk ere norabide berean doaz; izan ere, lizitatzailerek kalitate-ziurtagiriak — ingurumen-ziurtagiriak barne— izatea kontuan hartzeak ez du aukerarik ematen eskaintzen ebaluazio konparatiboa egiteko eskatutako prestazio zehatzari dagokionez, eta, beraz, kontratazio publikoari buruzko legeriaren aurka doaz⁶.



HORTAZ, AKATS HORI HORRI LOTUTAKO ARRISKUAK EKIDITEKO, HONAKO HAU GOMENDATZEN DA:

- **Ez hartzea kontuan** lizitatzailerek ingurumen-kudeaketako **ziurtagiriak izatea.**
- Ingurumen-kudeaketarako sistemak **zeharka kontuan hartzea** eta enpresek zerbitzua **gauzatzean ezarriko dituzten** alderdi, prozedura eta neurri zehatzak **kontuan hartzea.**

⁶ 8. akatsaren fitxan, arrazoibide hori babesten duen informazio gehigarria ematen da; izan ere, Legeak ingurumen-kudeaketako ziurtagiriak frogabide gisa aurkeztea ahalbidetzen du, eta ez irizpide gisa, 3. akatsaren fitxan ekoetiketei buruz azaldutakoaren antzera.





Zein izango litzateke bertsio zuzen bat?

Goian azaldutakoa kontuan hartuta, hasieran emandako adibidea zuzendu dezagun:

HASIERAN

BALORAZIO AUTOMATIKOko adjudikazio-irizpide gisa ezartzen da:

- Enpresa lizitatzailen EMAS ingurumen-kudeaketako ziurtagiria edo baliokidea izatea.⁷

ZUZENKETA 1. AUKERA

BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZKO BALORAZIOko adjudikazio-irizpide gisa ezartzen da:

- Lizitatzailerek obrak gauzatzen diren bitartean ezarriko dituzten ingurumen-kudeaketarako eta -jarraipenerako neurriak, honako hauei dagokienez: erabilitako eragiketa, ibilgailu eta makinaren ondoriozko hauts- eta zarata-emisioak eta hondakinen sorrera minimizatzea, gaikako bilketa (ahalik eta frakzio gehienetan) eta baimendutako kudeatzaileen bidez behar bezala kudeatzea.

Horretarako, ingurumen-kudeaketako memoria bat aurkeztu beharko da, proposatutako neurrien zerrenda eta deskribapena jasoko dituena, bai eta horietako bakoitzaren ezarpena ziurtatzeko jarraipen-prozedurak ere.⁷

- Eskaintzen —ez enpresena— ingurumen-kalitatea kontratuaren xedearekin alderatu ahal izateko, enpresek kontratua gauzatzean ezarriko dituzten ingurumen-neurri zehatzak ebaluatu behar ditugu, eta ez soilik enpresek ingurumen-kudeaketako sistema jakin bat izatea. Sistema horiek alderdi asko bil ditzakete, eta baliteke benetan interesatzen zaizkigunak ez estaltzea, eskaintzak hobeto alderatzea ahalbidetuko baitigute.
- Obrak egitean kontuan hartu nahi ditugun ingurumen-alderdietarako (kasu honetan, hautsa, zarata eta hondakinak) prozedura eta baliabide garrantzitsuak dituzten ingurumen-kudeaketarako sistemak dituzten enpresei errazagoa izango zaie obrei ezarri ahal izango dizkieten ingurumen-kudeaketarako eta -jarraipenerako neurriak deskribatzea, eta, beraz, halako sistemarik ez dutenek baino eskaintza hobek aurkeztea, horiek ziurtatuta izan ala ez.
- Jakina, horrek esan nahi du ingurumen-kudeaketako sistemaren ziurtagiria aurkezteak baino lan gehiago eskatzen duela (bai enpresentzat, bai kontratazio-organoarentzat), baina gero erraztu egingo du neurri horien jarraipena kontratua gauzatzen den bitartean, monitorizatu beharreko alderdien zerrenda zehatza izango baita.

ZUZENKETA 2. AUKERA

BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZKO BALORAZIOko adjudikazio-irizpide gisa ezartzen da:

- Lizitatzailerek obrak gauzatzean ezarriko dituzten ingurumen-kudeaketarako eta -jarraipenerako neurriak.

Horretarako, ingurumen-kudeaketako memoria bat aurkeztu beharko da, kontrolatuko diren ingurumen-alderdiak, horretarako proposatutako neurriak eta deskribapena, eta horietako bakoitzaren ezarpena ziurtatzeko jarraipen-prozedurak zehaztuko dituena.⁷

- Zuzenketa 1. aukeran, inpaktuak (hautsa, zarata eta hondakinak) kontrolatu eta murriztu nahi diren ingurumen-alderdiak zehaztu dira. Kasu horretan, batez ere proposatutako kontrol-neurrien eta -sistemen kalitatea hartzen da kontuan.
- Aldiz, ingurumen-alderdi zehatzak zerrendatzen ez dituen bigarren aukera honetan, balorazioak kontuan hartuko ditu, alde batetik, lizitatzailerek ingurumen-kudeaketako memorian txertatzen dituzten ingurumen-alderdien zabalatasuna, zein horien kalitatea.

⁷ Aurreko fitxetan azaldu den bezala, irizpidearekin, balorazio-parametroekin eta puntuen banaketa-tarteekin lor daitekeen gehieneko puntuazioa gehitzea falta da. Aurkeztu beharreko dokumentazioa hemen sartu da, baina zuzenagoa izango litzateke gutun-azal bakoitzean aurkeztu beharreko informazioari dagokion administrazio-agiriaren atalean adieraztea.

Salbuespenik al dago?

Esan bezala, Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiak aukera ematen du ingurumen-kudeaketarako sistemak kontuan hartzeko, baldin eta horrek aukera ematen badu kontratuaren xedearan harira duten berezko kalitateari dagokionez ebaluazio konparatiboa egiteko, eta hori oso kasu gutxitan gertatzen da.

Aukera bat da lizitatuzailearen ingurumen-kudeaketako sistema kontuan hartzen ez denean, eta **sistema horren implementazioa hartzen denean kontuan** kontratuaren xede den zerbitzurako eskaintzaren zati gisa; jarraian erakusten den bezala.



Adibidez:

Zerbitzu publiko baten urte anitzeko kudeaketarako lizitazioan (kiroldegia, gizarte-etxea, garraio publikoko zerbitzua eta abar), BALORAZIO AUTOMATIKOKo adjudikazio-irizpideetan honako hau ezar liteke:

EMAS baten implementazioa (5 puntu). Kontuan hartuko da enpresa lizitatuzaileek, beren eskaintzaren parte gisa, EMAS Erregelamenduaren arabera zerbitzurako ingurumen-kudeaketako sistema bat ezartzeko konpromisoa hartzea, gehienez ere (2) urtez, kontratua indarrean sartzen denetik zenbatzen hasita.

- Kasu horretan, ingurumen-kudeaketako sistema bat hartu daiteke kontuan, ez baita hartzen kontuan lizitatuzaileak horrelako bat izatea, baizik eta kontratuaren xede den zerbitzuan bat ezartzea. Sistema implementatzea eskaintzaren parte da, eta ez lizitatuzailearena; beraz, proposatzen duen eskaintzaren eta proposatzen ez duenaren arteko berezko kalitatea alderatzea ahalbidetzen du.*
- Bestalde, zerbitzuaren parte izan behar duen ezaugarri bat denez eta lizitatuzaileen artean bereizkeriarik eragiten ez duenez, kontratazio-organoak eska dezake kudeaketa-sistemak EMAS erregelamenduari erantzutea, eta ez beste arau edo estandar bati. Espedientean sartu beharko da soilik zergatik hobesten den EMAS beste sistema bat baino, eta horrela justifikatu egin beharko da hautaketa hori.*



Kaudimen-irizpide gisa ziurtatutako ingurumen-kudeaketako sistema bat izateko eskatzea

Nahiz eta Kontratuei buruzko Legeak aukera ematen duen kaudimenaren atalean ingurumen-kudeaketako sistemen ziurtagiriak aurkez daitezela exijitzeko, hori frogabide gisa baino ez dago aurreikusita, eta ez irizpide gisa. Akats hori saihesteko, kaudimen-irizpideak enpresa lizitatzailleek kontratua gauzatzean ingurumen-kudeaketarako neurriak ezartzeko duten gaitasuna erakutsi behar du, ingurumen-kudeaketako sistemen ziurtagiriekin edo egiaztagiri baliokideekin egiazta daitekeena.



Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak argi eta garbi jasotzen duen arren zer kontratu-motatan frogatu behar den kontratuak gauzatzean ingurumen-kudeaketako neurriak ezartzeko gaitasun tekniko eta profesionala [88., 90. eta 91. art.] eta ingurumen-kudeaketako sistemen ziurtagiriak gaitasun hori egiaztatzeko bitartekoak baino ez direla [94. art.], oraindik ere, zenbait baldintza-agirik ingurumen-kudeaketako sistema baten ziurtagiria behar dute kaudimen-irizpide gisa, eta ez egiaztatzeko bitarteko gisa.



Adibidez:

Udal-kiroldegiko kudeaketa-zerbitzurako lizitazio batean, kaudimen profesionaleko irizpideetan, ingurumen-kudeaketako ziurtagiria eskatzen da, EMAS erregelamenduaren edo baliokidearen arabera.

- *Zenbait baldintza-agiritan, hori kaudimen-irizpide gisa jasota egon daiteke berez, hau da, irizpidea enpresa lizitatzaillearen ingurumen-kudeaketako ziurtagiria dela.*
- *Beste zenbaitetan, akatsa gertatzen da ingurumen-kudeaketako ziurtagiria egiaztapen-bitarteko gisa aurkeztea eskatzen denean eta, kaudimen-irizpideetan, lizitatzailleak kontratua gauzatzen den bitartean ingurumen-kudeaketako arau jakin batzuen arabera hartuko dituen ingurumen-kudeaketako neurriak zehaztu gabe daudenean. Egiaztapena ezarri da, baina ez irizpidea.*

Non dago arazoa eta nola konpondu daiteke?

Ingurumen-kudeaketako neurriei dagokienez, Kontratuei buruzko Legeak argi bereizten ditu eska daitezkeen kaudimen-irizpideak eta kaudimen-irizpide horiek betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

Kontratu guztietarako (instalazio-lan gehigarri gabeko horniduretarako kontratuak kontratu edo kontratu misto bihurtzen dituzten beste batzuetarako izan ezik), eta kontratuaren xedearan arabera egokitzen jotzen denean, kontratazio-organoak honako hauek eska ditzake:

- **Kaudimen-irizpide gisa, "enpresaburuak kontratua egikaritzean aplikatu ahalko dituen ingurumen-kudeaketako neurriak adieraziko dira"** [88., 90. eta 91. art.].
- **Egiaztatzeko bide gisa, "organismo independenteek emandako ziurtagiriak aurkez daitezela, haien bidez egiaztatzeko lizitatzailleak ingurumen-kudeaketaren arloko zenbait arau betetzen dituela"**, EMAS erregelamenduari, EMASek onartutako ingurumen-kudeaketako beste sistema bati edo Europako edo nazioarteko arauetan oinarritutako beste arau batzuei —ISO 14001, esaterako— dagokienez [94.1 art.].

Ogasun Ministerioaren Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiaren (KEAAN) zenbait ebazpenek bereizketa hori eta irizpidea egiaztapenarekin nahastearen akatsa azpimarratzen dituzte. Hala, 820/2019 Ebazpenean, KEAANak honako hau adierazten du:

*"[...] Epaimahai honek behin eta berriz adierazi du **ziurtagiria ez dela berez kaudimen-betekizuna, baizik eta hori egiaztatzeko bitarteko posibleetako bat**. AKPAk beste modu batera definitu behar ditu kaudimen-betekizunak, eta ez ziurtagiriak aipatuz soilik [...]"*

Hori indartu egiten da egiaztatzeko beste modu batzuk onartu behar direlako, Legeak jasotzen duen bezala [94.2 art.], eta ebazpenak berak

—"[...] **beste egiaztapen-modu batzuk onartu behar dira** [...]"—.

Ekoetiketa gehien kasuan bezala⁸, ingurumen-kudeaketarako sistemak borondatezko sistemak dira, eta, beraz, ziurtapen-prozesua ez dute enpresa guztiek (batez ere ETEek) egiten, nahiz eta zerikusia duten arauen eskakizunekin bat datozen ingurumen-kudeaketarako sistemak izan. Ziurtagiriak kaudimen gisa eskatzea diskriminatzailea izango litzateke, eta lizitatzailerak desberdin tratatzea ekar lezake; eta hori, kontratazio guztietan errespetatu beharreko oinarriko printzipioen aurka joango litzateke.

Hori dela eta, Legeak erakunde independenteez emandako ingurumen-kudeaketarako ziurtagiriak ezartzen ditu nolabaiteko gaitasun profesionala frogatzeko edo egiaztatzeko bitarteko gisa, eta ez irizpide gisa. Beti onartu beharko dira egiaztagiri baliokideak.



BERAZ, LIZITATZAILEAK KONTRATUA GAUZATZEAN BERMATUKO DITUEN INGURUMEN-KUDEAKETAKO NEURRIAK KAUDIMEN TEKNIKOAN ETA PROFESIOLEAN ESKATZEN DIRENEAN, HONAKO HAUEK ZIURTATUKO DITUGU:

- **Obra- eta zerbitzu-kontratuetan** baino ez da eskatzen, eta, **betiere**, kontratuaren xedearekiko **egokia**, garrantzitsua eta proportzionala bada. Lizitatzailerak kontratua gauzatzeko ingurumen-kudeaketarako neurriak adieraz ditzatela eskatzeko, baldintza-agirietan nahitaezko ingurumen-kudeaketarako neurriak jaso behar dira, enpresari neurri horiek gauzatzeko kaudimena duela frogatzea eskatzeko beharra justifikatzeko. Ez litzateke egokia edo koherentea izango ingurumen-kudeaketarako neurriak kaudimen gisa eskatzea, baldintza-agirietan ez bada horri buruzko baldintza zehatzik jasotzen.
- **Ziurtagiria, berez, ez da eskatzen** kaudimen-irizpide gisa behar; **kaudimen-irizpidea** lizitatzailerak **kontratua gauzatu bitartean ingurumen-kudeaketa** bermatzeko hartuko dituen neurriak dira, EMAS erregelamenduan, EMASEk onartutako ingurumen-kudeaketarako beste sistema batzuetan edo ingurumen-kudeaketarako Europako edo nazioarteko arauetan oinarritutako beste arau batzuetan ezarritako irizpideekin bat etorritik.
- Enpresa lizitatzailerak aurkeztu beharreko egiaztagirietan, **baldintza betetzen dela frogatzeko, ingurumen-kudeaketarako ziurtagiria** aurkezteko **eska daiteke**, eta, era berean, adierazten da neurri baliokideak **egiaztatzeko beste dokumentu batzuk** onartzen direla, baldin eta lizitatzailerak frogatzen badu definitutako ingurumen-kudeaketarako sistemaren edo arauaren baliokideak direla.
- **Egiaztatzeko ziurtagiria edo dokumentazio baliokideak kontratuaren xede den jarduerarako izan beharko du, gutxienez;** izan ere, zehaztapen guztiek kontratuaren xedearekin lotuta egon behar dute.

Ingurumen-kudeaketako sistemen erabilerari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, Ihobek argitaratutako **"Erosketa eta kontratazio publiko berdean ingurumen-ziurtagiriak erabiltzeari buruzko gida praktikoa"** kontsulta dezakezue, bai eta bilduma honetako 7. akatsaren fitxa ere, "Kontuan hartzea lizitatzailerak ingurumena kudeatzeko sistema bat izatea" izenekoa.

8 Ikusi. 3. akatsaren fitxa.



Zein izango litzateke bertsio zuzen bat?

Orain badakigunez non zegoen akatsa eta nola zuzendu behar den baldintza, Kontratuei buruzko Legearen ikuspuntutik modu seguruan idatzita egon dadin, zuzendu dezagun hasieran emandako adibidea. Irizpidearen balizko bertsio bat honako hau izango litzateke:

HASIERAN

Udal-kiroldegiko kudeaketa-zerbitzurako lizitazio batean, kaudimen profesionaleko irizpideetan, ingurumen-kudeaketako ziurtagiria eskatzen da, EMAS erregelamenduaren edo baliokidearen arabera.

ZUZENDUTA

Lizitatzailleak kontratua gauzatzen den bitartean ingurumen-kudeaketako jardunbide egokiak ezartzeko gaitasuna duela frogatzeko eskatzen da, EMAS Erregelamenduan edo arau baliokidean ezarritako parametroen arabera.

Hori egiaztatzeko, ingurumen-kudeaketarako sistema bat izatearen ziurtagiria aurkeztu ahal izango da, EMAS erregelamenduaren edo gutxienez kontratuaren xede den jarduerarako (kirol-ekipamendu baten kudeaketa) balio duen arauaren edo erregelamendu edo arau horren baliokidea den dokumentazioaren arabera.

- Testu horrekin, kaudimen-irizpidea ezartzen da (kontratuan zehar ingurumen-kudeaketa egokia egiteko gaitasuna), bai eta hura modu berezian egiaztatzeko modua ere (EMAS ziurtagiria edo antzeko beste sistema baten ziurtagiria edo hautabidezko dokumentazio baliokidea).
- Baldintza-agiri teknikoan edo egikaritze-klausula berezietan, kaudimen profesional hori eskatzea justifikatzen duten ingurumen-kudeaketarako betekizunak egon beharko dira (hondakinen kudeaketa egokiari buruzkoak, ura eta energia aurrezteko neurriei buruzkoak eta abar).



Zehaztapen teknikoak txertatzea egikaritze-baldintza gisa

Kontratuei buruzko Legeak, gutxienez, ingurumen-, gizarte- edo berrikuntza-izaerako exekuzio-baldintza berezi bat sartzea eskatzen duen arren, hori egitean, exekuzio-baldintza berezi gisa zehaztapen tekniko bat —hau da, kontratuaren xedearen ezinbesteko ezaugarri bat— sartzea saihestu behar dugu, baldintza horiek osagarriak baino ez baitira.



Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 202. artikulua ezartzen duenez, nahitaezkoa da administrazio-klausula zehatzen baldintza-agirian gutxienez ingurumen-, gizarte- edo berrikuntza-izaera duen baldintza berezi bat zehaztea.

Ohikoenak gizarte-izaerakoak diren arren, kontratazio-organo askok planteatzen dute ingurumen-baldintzak sartzea, batez ere gainerako baldintza-agirietan ez denean horrelako klausularik sartu.

Akatsa da kontratua gauzatzeko baldintza berezi gisa berez prestaziorako funtsezkoa den klausula bat sartzea, eta, beraz, zehaztapen tekniko bat izan beharko luke eta lizitatzailleek aurkeztu beharreko eskaintzen parte izan beharko luke.



Adibidez:

Energia elektrikoaren hornidurarako lizitazio batean, kontratua GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZI gisa ezartzen da hornitutako elektrizitatea % 100 berriztagarria izan behar dela eta urtero jatorri berriztagarria ziurtatu behar dela; horretarako, kontratuaren xedearen sartutako HPKUren (Hornidura Puntuaren Kode Unibertsala) zerrenda xehatua, horietako bakoitzaren energia-kontsumoa eta HPKU bakoitzari lotutako jatorri-bermearen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

- Klausula horretan bi baldintza ezartzen dira: alde batetik, hornitutako energia iturri berriztagarrietatik etortzea; eta, bestetik, kontratua gauzatzen den bitartean, jatorri berriztagarri hori bermatzea, horretarako, erakundeak kontsumitutako energia-kontsumoaren baliokide diren jatorri-bermearen ziurtagiriak aurkeztuz.*
- Lehenengo baldintza kontratuaren xedearen ezinbesteko ezaugarria da, eta ez litzateke zehaztu behar kontratua gauzatzeko baldintza berezi gisa.*

Non dago arazoa eta nola konpondu daiteke?

Betearazpen-baldintza bereziak ulertzeko gakoa, hain zuzen ere, "bereziak" hitza da. Ogasun Ministerioaren Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiaren 897/2019 Ebazpenak jasotzen duenaren arabera,

"[...] baldintza bereziak prestazio nagusiaren betearazpenari erantsitako inguruabarrak dira [...]"

Hau da, kontratuaren xedeak edo kontratuaren zati batek hertsiki eskatzen ez dituen arren, baina horrekin lotuta egonik, modu osagarrian sartzen diren baldintzak dira, ingurumen-, gizarte- edo berrikuntza-esparruko zeharkako politikak sustatzeko.

Horregatik, baldintza bereziak ezin dira izan ingurumen-arloko lege-betebehar soilak; izan ere, Ebazpenak ondo jasotzen duen bezala:

"Betearazteko baldintza berezietan gain, aplikazio orokorreko legezko betebehar eta betekizunak daude; bai eta ingurumeneko-esparrukoak ere. Horiek nahitaezkoak dira, beti bete behar dira; baina horrek ez du esan nahi betearazte-baldintza bereziak direnik".

Kontratazio-organoak behar diren neurriak hartu beharko ditu kontratistak lege-betebehar horiek betetzen dituela ziurtatzeko, baina horrek ez du esan nahi kontratuaren xedea gauzatzeko berariazko baldintza bereziak direnik.



HORI DELA ETA, BALDINTZA-AGIRIAK GERTATZERAKOAN, HONAKO HAU BERMATU BEHAR DA:

- Kontratuaren xedearen **ezinbesteko ezaugarriak zehaztaperen tekniko gisa** definitzen dira, eta EZ betearazpen-baldintza berezi gisa. Zehaztaperen teknikoetan, eskaintzetan esplizituki jaso behar diren eta eskaintzetan egiaztatu edo justifikatu behar diren alderdi edo ezaugarri guztiak sartuko lirateke.
- Kontratuaren xede den lanerako funtsezkoak ez diren —ez eta legezko betebeharrak ere— baina betearazpenean ingurumen-portaera hobetzen duten **alderdi osagarriak** bakarrik sartzen dira betearazpen-baldintza berezi gisa, eta horietarako ez da eskatzen eskaintzetan justifikazio espezifikorik.

Laguntzeko, Ihoberen Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Irizpideak kontsulta ditzakegu (<https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>). Irizpide horietako gehienek zehaztaperen teknikoan eta adjudikazio-irizpideen osagarriak diren betearazpen-klausula osagarriak barne hartzen dituzte (helburu hauek dituztenak: zerbitzuan sortutako hondakinak edo ekipo zaharkituak hobeto kudeatzea, kontratuan zehar langileak prestatzea, komunikazio-elementuak sartzea, kontratuen jarraipena egiteko txostenak egitea eta abar).



Zein izango litzateke bertsio zuzen bat?

Orain badakigunez non zegoen akatsa eta nola zuzendu behar den zehaztapena, Kontratuei buruzko Legearen ikuspuntutik modu seguruan idatzita egon dadin, zuzendu dezagun hasieran emandako adibidea. Irizpidearen balizko bertsio bat honako hau izango litzateke:

HASIERAN

Kontratua GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZI gisa ezartzen da hornitutako elektrizitatea % 100 berriztagarria izan behar dela eta urtero jatorri berriztagarria ziurtatu behar sartutako HPKUren zerrenda xehatua, horietako bakoitzaren energia-kontsumoa eta HPKU bakoitzari lotutako jatorri-bermearen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

ZUZENDUTA

ZEHAZTAPEN TEKNIKO gisa definitzen da hornitutako elektrizitatea % 100 iturri berriztagarrietatik etorri behar dela, 2009/28/EE Zuzentarauak eta ondorengo zuzenketek definitzen dutenaren arabera.

Kontratua GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZI gisa ezartzen da urtero jatorri berriztagarria ziurtatu behar dela; horretarako, kontratuan sartutako HPKUren (Hornidura Puntuaren Kode Unibertsala) zerrenda xehatua, horietako bakoitzaren energia-kontsumoa eta HPKU bakoitzari lotutako jatorri-bermearen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

- Hori horrela, kontratuaren xedearen ezinbesteko betekizuna —elektrizitatea berriztagarria izan behar dela— zehaztaperen tekniko gisa sartzen da, behar bezala; eta elementu osagarria —betearazpenean zehar egiaztatzen duena— kontratuaren xedearen osagarri den betearazpen-baldintza berezi gisa mantentzen da, baina ez da kontratuaren ezinbesteko ezaugarria.



Herri-baltza
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

